2003-V-16
Número **104.** zenbakia

ELA

astekaria

# EDITORIALA

## Arau guztiak hautsiz

**Adegi patronalak papergintzako langileei ultimatum batez erantzun die: luzatu duen eskaintza bere horretan onartu ezean, gutxiengoarekin sinatu, eta langileei banan-bana sinatu araziko die. Badirudi enpresariek papergintza estrategia berri baten lehen saiotzat hartu duela: batetik, negoziazio-mahaiari uko egitea, ugazabek beren kabuz erabaki ahal dezaten noiz eta norekin sinatzen duten. Bestetik, langileak banaka sinatzera behartzea.**

**Ugazabek horrela langile-mugimenduak belaunaldi askoren buruan erdietsi dituen lorpenak zapuztu nahi ditu. Lehena, lan-baldintzak ez direla banaka langile eta ugazabaren artean erabakitzen, era kolektiboan baizik, langile bakoitzak enpresaburuarekiko duen ahulezia orekatuta gera dadin. Deuseztatu nahi duten beste oinarri bat: hitzarmenean enpresaburuekin nork negoziatzen duen erabakitzea langileen esku dago.**

**Aurreko biak bezain larria da Adegik hirugarren arau bat baztertu nahi izatea: Hitzarmenean erabakia gehiengoari dagokio, eta langileek sindikatu bati ordezkapen txikia eman badiote, honek ezin du inola ere euren borondatea islatu.**

**Baina okerrena ez da ugazabek horrelako jokabidea agertzea; aitzitik, penagarriena sindikatu batzuk joko horri men egitea da. Noski, CC OO edo UGTri ez diegu eskatuko hitzarmenari buruz gehiengoarekin guztiz bat etortzea. Baina onartezina da duten ordezkaritza txikia izanik arauak hautsi eta Adegiren morroi gisa jokatuz sektoreko negoziazio dinamika etetea, hondatzea.**

**Adegik papergileei egin nahi diena lortzen badu, banakako lan-harremanak ezarri eta hitzarmen probintziala ugazaben jostailu bihurtuko da. Langileon erantzun bateratua inoiz baino beharrezkoago gertatzen da, negoziatzen duguna eta negoziatzeko sistema bera arriskuan baitago.**

## José Elorrieta denuncia las maniobras de la patronal en el metal y papel de Gipuzkoa

# "ADEGI TENDRÁ QUE NEGOCIAR"

La negociación colectiva está en pleno apogeo: en sectores como el de residencias de la tercera edad de Araba, el Metal o el Papel de Gipuzkoa el conflicto sigue vivo. Para Sebas Andreu, responsable de negociación colectiva de ELA, "la negociación debe servir para combatir la creciente precariedad laboral, la discriminación entre diferentes grupos de trabajadores –jóvenes y mujeres suelen ser los colectivos más perjudicados– y repartir mejor la riqueza generada entre todos".




En el mitin celebrado el viernes ante 800 delegados del papel y el metal de Gipuzkoa reunidos en el frontón Atano III de Donostia han intervenido los responsables del metal y papel de ELA y LAB, además de los secretarios generales confederales José Elorrieta y Rafa Díez. José Mari Larrañaga y Gurutz Gorraiz, responsables del metal y papel de ELA, subrayaron la necesidad de seguir luchando, "ya que el conflicto es el único lenguaje que entiende la patronal".

José Elorrieta ha afirmado, por su parte, que "si queremos mejorar las condiciones de trabajo, no nos va a caer del cielo, ni vendrá como concesión de la patronal". En palabras de Elorrieta, "la mayoría sindical ha decidido dar prioridad a los contenidos, e ir a la confrontación".

El dirigente de ELA ha afirmado que, "la respuesta de la patronal, es que no negocia. Y mientras que en el metal abandona la mesa creyendo que podrá imponerse en las empresas, en el papel quiere cerrar un acuerdo en minoría".

Elorrieta ha lanzado una advertencia: "Adegi se equivoca, y vamos a seguir luchando; tarde o temprano tendrá que aceptar quién representa a la mayoría sindical, y tendrá que negociar con ella". *(pág.2)*

# EKAINEAN, KONGRESUAK

Lan munduaren garapenari jarraitzearren, ELAk aldakuntzak egingo ditu bere egituran: Tokian tokiko militanteen ekarpena bultzatzeko eskualde baturez gainera herri-baturak osatuko ditu, eta egungo sei federazioen ordez lau izango dira, Eraikuntza-Zurgintzak Igekorekin eta Irakaskuntzak Zerbitzu Publikoekin bat egitearen ondorioz. Federazioen berregituraketak sindikatuan duten pisu politikoa orekatuko du –tamaina berdintsuagoarekin batera, Nazio Batzordean ordezkari kopuru bera izango baitute–, eta liberatu taldeak indartzeko aukera emango du. Honek guztiak federazioen eta konfederazioaren kongresuak egitea eskatzen du, estatutuetan hainbat puntu aldatu behar baitira. Ekainean egingo dira federazioen kongresuak, eta hil bereko 26an Bilbon izango da ELAren ezohiko kongresua.

**(3.orr.)**

*Aukeran*
ELA
Babesik sendoena

# LUCHAR POR LOS CONVENIOS

*(Resumen de la intervención de Elorrieta)*

Además de para tomar el pulso a la marcha de la negociación colectiva y seguir proyectando una posición conjunta de reivindicación, de lucha, esta intervención puede enmarcarse en un plano más general, como algo necesario dados los reiterados ataques y descalificaciones provenientes de las cúpulas patronales. Han sido unos ataques y unas descalificaciones tan aparatosas como inconsistentes, propias de estos pirómanos sociales que no hacen sino aprovecharse de una situación económica boyante para llenarse los bolsillos, y aprovecharse también de una legislación laboral permisiva para abusar y explotar.

Una de las andanadas patronales de estos días ha sido asegurar que las relaciones laborales son las peores en los últimos diez años. Por supuesto, han hecho omisión de las causas más determinantes de esta situación. Niveles de precariedad del 33%, discriminaciones salariales con dobles y triples escalas, sobre todo a las y los jóvenes y a las mujeres, condiciones laborales totalmente desreguladas en cuanto a ritmos y horarios, falta de medidas preventivas en materias de salud y seguridad. Estas, y no otras, son las claves que explican lo que está pasando en Euskal Herria en las relaciones sindical-patronal. Además, como han hecho del chantaje un modus operandi, amenazan con coger el dinero y llevárselo a otra parte.

Afirman que ya se han tenido que marchar doscientos trabajadores y trabajadoras con motivo de la deslocalización de empresas a causa del clima sindical. Mucho menos desde luego, de los que se han marchado por deslocalizaciones de los equipos de dirección y técnicos, muchos menos de los miles de empleos que se han perdido por graves déficit de gestión empresarial.

## LES VA DE CINE

Nosotros podemos demostrar con datos lo bien que les va a los empresarios en Euskal Herria:

- De 1993 al año 2001, mientras que la distribución de la renta de los y las asalariadas ha caído del 55,4% al 49,8%, las rentas empresariales y de capital han pasado del 37,2% al 40,6%.
- Los gastos de personal en relación a la producción, han caído en el mismo período del 24,7% al 16,08% (de un cuarto a la sexta parte), mientras que el beneficio bruto en relación a la producción ha pasado del 3,94% al 8,16%.
- Sólo de 1996 al año 2000, el poder adquisitivo per cápita de las y los trabajadores ha caído el 1,94%, sobre todo por el bajo nivel salarial de los más de 300.000 nuevos empleos.

¿De qué se queja la patronal?

El problema de la patronal es que la mayoría sindical ha decidido reivindicar, de forma conjunta, lo que mejora indudablemente nuestra capacidad de respuesta.

Entonces, se cierran en banda; se niegan a respetar nuestra interlocutoriedad; rechazan cualquier hipótesis de un acuerdo, descalificando nuestras demandas. Tiene una estrategia, no ceder bajo ninguna hipótesis, buscar acuerdos de eficacia general o de eficacia limitada. La patronal complementa esta estrategia con posiciones tendentes a pudrir el proceso negociador cuando los acuerdos con otros sindicatos no son posibles o sencillamente no les conviene, para desgastarnos.

Evidentemente, esta estrategia tiene de manera inmediata un efecto en la conflictividad: su objetivo es que las trabajadoras y los trabajadores claudiquen, que se rindan y cuando no lo consiguen tratan de generar una "alarma social" que fuerce una intervención de la Administración, como ha ocurrido en el convenio de Transporte de viajeros de Bizkaia.

Sin embargo parece que no les cuadran las cuentas; amagan ahora con otra baza, la del acuerdo en minoría con adhesión individual, amenazando, incluso, con la desaparición de la negociación colectiva.

## INTENSIFICAR LA UNIDAD SINDICAL

A nosotros sólo nos tiene que preocupar una cosa: ir creando condiciones cada vez más sólidas, menos reversibles en nuestro trabajo unitario, porque desde una acción conjunta en las empresas y en los sectores tenemos la fuerza necesaria para mejorar en términos de salario, de jornada, de estabilidad contractual, de condiciones laborales la situación de las trabajadoras y de los trabajadores vascos. Este es un objetivo totalmente prioritario para la mayoría sindical vasca, es un trabajo que requiere combinar ambición y posibilismo, que requiere rigor y constancia.

Estamos trabajando bien en el Metal y en el Papel, y sin perder ni mucho menos la perspectiva sectorial de los convenios, nuestro punto fuerte está en las empresas, en nuestro nivel de representatividad en las empresas, en nuestro nivel de afiliación en las empresas, en nuestra capacidad de desarrollar una acción sindical, no coyuntural sino sostenida, siempre de abajo hacia arriba.

Tarde o temprano la patronal va a reconocer lo que es y representa la mayoría sindical vasca, tarde o temprano va a tener que corregir su estrategia y mientras tanto convenio a convenio, nosotros vamos a ir avanzando. Juntos podemos más, juntos sí podemos.

## Sebas Andreu, negoziazio kolektiboaren arduraduna

# "UGAZABEK EZ DUTE EZER ALDATZERIK NAHI"

Sebas Andreuk dioenez, "ugazabek ez dute inongo aldaketarik nahi. Egungo egoera ezin hobeto doakie, eta bere horretan jarraitzea gure kalterako da". Gainera, negoziazio kolektiboaren arduradunak uste duenez, enpresariek badakite "CC OO eta UGTren laguntza edozein unetan izan dezaketela, eta dinamika sindikal biziarekiko bildurra hedatu nahi dute gizartean, ikusten baitute lan-harremanetan izan dituzten pribilegioak eta abantailak gal ditzaketela". Horren guztiaren ondorioa, Andreuren irudiko: "Argi dago gatazka dela lan munduko egoera hau aldatzeko bide bakarra". Sektoreko borroka eta enpresetako lana sakontzearekin batera, udan negoziazioa nola doan aztertu eta udazkenean datorren urteko lana prestatzen hasi beharra dago.

Hainbat sektore zertan den:

✔ Gipuzkoako metalgintzan, gatazkaren lehen fasea amaiturik (hainbat egunetan greba izan da, lurralde osoan eta eskualdeka), sektore eta enpresa esparruko negoziazioa konbinatzeko asmoa dugu, erantzuna hobetze aldera, lan sindikala zehaztu eta edukiak finkatzekotan.

Maiatzaren 29 eta 30ean berriro sektore mailako greba izango da.

✔ Gipuzkoako papergintza: Gatazkaren bigarren fasera goaz, eta oraingoan bost egunez egingo da greba. Patronalak mugimendu gehiago egin du, ELAk eta LABek oso dinamika indartsua ezarri baitute.

✔ Arabako adinekoen egoitzetan, gatazka duela ia bost hilabete hasi zen. Diputazioak lan-baldintza negargarriak nahi ditu, baina gure militanteen eta beharginen lana oso ona izan da, eta oso lan-baldintza txarrak dituzten sektoreentzat eredu ditugu.

✔ Bizkaiko bidaiarien garraioa: Eusko Jaurlaritzaren eskuhartzearekin, bete beharreko laudoarekin alegia, amaitu zen gatazka luze hau. Patronalaren alde jokatu du administrazioak, eta hau justifikaezina da, hurrena ere eusten badute laudoa etorriko dela bai baitakite.

✔ Enpresa mailako negoziazioa: Negoziazioaren egituran beharrezko bidea dela ari gara frogatzen; emaitza onak lortu dira, eta bereizkeriei aurre egiteko esparru egokia dira.



Gaia Tema

## Habrá congresos federales los días 3, 10, 13 y 17

# ELA CONVOCA CONGRESO EXTRAORDINARIO EL 26 DE JUNIO PARA MODIFICAR SUS ESTATUTOS




| CALENDARIO DE CONGRESOS FEDERALES | |
|---|---|
| *Construcción y Madera e Igeko | 3 junio |
| *FETA | 10 junio |
| *Irakaskuntza y Servicios Públicos | 13 junio |
| *Metal | 17 junio |
| CONGRESO CONFEDERAL | |
| 26 de junio | |

El próximo 26 de junio ELA celebrará Congreso confederal Extraordinario en el Teatro Arriaga de Bilbo con un tema central: la modificación de los Estatutos. Esta modificación responde básicamente al plan organizativo que con el epígrafe 4x12=29 ha sido aprobado por el Comité Nacional tras varios meses de debate en el conjunto de las organizaciones.

La primera de las cifras, 4, indica el número de las federaciones que ELA tendrá en breve, partiendo de las 6 actuales, una vez se fusionen Servicios Públicos e Irakaskuntza, por una parte, e Igeko y Construcción y Madera, por otra. Manteniéndose, en consecuencia, en los términos actuales la federación del Metal y Feta (sector terciario privado).

Las cuatro federaciones resultantes tendrán un peso específico más parejo en términos de afiliación, dentro de una banda comprendida entre el 30% y el 20%, lo que posibilitará entre otras cuestiones, unos mayores niveles de homogeneidad en medios, y en formas de trabajo.

Igualmente, desde la vertiente del peso político de las 4 federaciones en los órganos de dirección confederal, el cambio planteado posibilita que cada federación tenga tres miembros en el Comité Nacional.

La cifra de 12 que figura también en el plan de organización señalado hace referencia al número de comarcales, número que no se modifica, si bien se acentúa el carácter integral de las uniones comarcales en ELA. Es decir, una misma dirección y coordinación de todos los recursos humanos, iniciativas y acciones profundizando de esta manera en las líneas organizativas cuyos resultados ya han sido contrastados.

Finalmente, el número 29 hace referencia a las uniones locales que se quieren desarrollar, dotándolas de medios suficientes para mejorar y ampliar sus espacios de acción sindical.

### CONSOLIDAR EL RELEVO GENERACIONAL Y DE GENERO

En resumen, se puede decir, que el plan 4x12=29 pivota sobre la perspectiva de un modelo confederal integral de base local, que busca en la fase actual el desarrollo óptimo, tanto en número como en funcionamiento, de las organizaciones de ELA, para ampliar nuestros núcleos militantes.

Los cambios estatutarios, además de reflejar las modificaciones derivadas de este plan de organización, incluyen asimismo otras enmiendas, como la ampliación del propio Consejo Nacional, que pasaría de 116 miembros a 196 para dotarle de una dimensión más completa y representativa de la realidad interna de ELA.

El Congreso confederal Extraordinario irá precedido por los Congresos de las federaciones, disolución de 4 de ellas, para constituir 2 nuevas, que celebrarán a su vez sendos Congresos Extraordinarios con las otras 2 federaciones restantes para aprobar también los nuevos estatutos y proceder a la elección de los nuevos equipos de dirección que se denominarán permanentes y que incluirán Secretario General, Responsable de Organización y entre 4 y 6 vocalías.

En lo que concierne a las modificaciones reglamentarias de las uniones comarcales, derivadas también del plan organizativo señalado, el calendario establecido para las mismas se situaría entre el segundo semestre del año en curso y el primer semestre de 2004.

Tanto el plan de organización como los Congresos Extraordinarios de las federaciones buscan también consolidar el relevo generacional y de género iniciado por ELA hace ya varios años, planteándose en este sentido que el Comité Nacional, órgano de dirección política del sindicato, tenga una media de edad en torno a los 40 años, en el que al menos un tercio de sus 36 miembros sean mujeres.

## MILITANTE GEHIAGO ETA EGITURA ERAGINGARRIAGOA

ELA sindikatu konfederala da, baina autonomia handiagoa izango dute federazioek eta eskualde baturek: giza-bitarteko nahikoak, kokapen egokia, egoitzak, autonomia hori sakontzeko zuzendaritza organoen garapena... Hobeto antolatu, militante kopurua gehitu eta eragingarriago izatea da kontua.

Antolakuntza plan hau gauzatzen denean, sindikatuko kideak ikusiko du bere federazioak erantzuteko ahalmen handiagoa duela, ekintza sindikal indartsuagoa egiteko gauza dela, eta lantokietara zein atal sindikaletara era antolatuago eta sistematikoan iristeko aukera gehiago duela.

Afiliatu guztiek somatuko dute herri-batura garatzearekin batera sindikatua hurbilago izango dutela, zeregin sindikaletarako hobeto prestatuta dagoela, arreta egokiagoa dela, egoitza guztietan behar diren bitartekoak, zerbitzu juridikoak eta liberatu zein militante taldeak izango baitituzte eskura.

Iritzia Opinión



# Diálogo-paripé, NO

Una de las afirmaciones que vienen repitiendo en los últimos días los portavoces de CONFEBASK y sus territoriales es la de que la mayoría sindical vasca, en particular ELA, ha roto toda posibilidad de diálogo social y ha situado en vía muerta órganos de diálogo entre patronal y sindicatos como el Consejo de Relaciones Laborales.

Como parce que la memoria patronal es flaca, vamos a recordarles cómo a principios del verano de 1997 –en una coyuntura económica favorable para las empresas y un paro del 20%– ELA y LAB presentaron en el Consejo de Relaciones Laborales un documento-propuesta de medidas de empleo. CONFEBASK no discutió la propuesta sindical, ni planteó nuevas materias, ni puso sobre la mesa una agenda de trabajo alternativa. Simplemente opuso su veto a que el Consejo de Relaciones Laborales empezara a hablar del tema. Sólo muchos meses más tarde la patronal tuvo que dar marcha atrás en una posición indefendible ante la opinión pública, y aceptó constituir la mesa de empleo en el CRL. El primer –y único– fruto de aquella mesa fue el acuerdo firmado en el CRL el 5 de enero de 1999 sobre varias materias, entre las que el contrato de relevo era la más concreta; en dicho texto CONFEBASK se comprometía a abrir una mesa de negociación específica sobre jornada de trabajo, que iniciaría su trabajo el 3 de febrero. Fue un compromiso con la boca pequeña, ya que, desde el primer momento, CONFEBASK no tuvo otro propósito que el de boicotear una negociación que en esas condiciones estaba condenada al fracaso y dejaba seriamente tocado el propio CRL.

La cuestión, por tanto, no es la de diálogo social sí o no, sino la de diálogo social para qué. CONFEBASK defiende el diálogo-paripé que deja las cosas como estaban. ELA y LAB seguimos defendiendo, como lo hicimos en la propuesta sobre jornada de trabajo y empleo, una negociación que permita mejorar las condiciones de trabajo y la participación en la riqueza. Para esta negociación estamos siempre abiertos en el CRL, los sectores o las empresas. Para el diálogo-paripé ya tienen a otros, aunque, para su desgracia, representen menos de lo que quisieran.

**GK**

astekaria




# “NAHITAEZKOA DA ALDI BERRI BAT ZABALTZEA”

## Josemari Aranbarri, idazkari nagusiaren ondokoaren esanetan

**Duela astebete AuBren ilegalizazioa salatzeko Hego Euskal herriko lau hiriburuetan bilkurak deitu zituen ELAk. Dudarik gabe, hau ez da azken protesta ekintza izango. Azken aldi honetan, gobernu espainolaren aldetik sekulako erasoa jasatzen ari gara, eta ez dirudi gauzak horretan geldituko direnik. Eraso gehiago etorriko dira, eta hauei aurre egiteko pauso berriak emateko gai izan behar dugu. Aldi berri bat zabaldu behar dugu.**

**–Zein da egoera politikoa ?**

–Azken hilabeteotan hainbat eraso izan dugu. Hor daude Egunkariaren aurkako operazioa, Udalbiltza, Batasuna edo AuBren ilegalizazioak. Guzti hauek erakutsi digute zein den Espainiako gobernuaren benetako aurpegia, eta aspaldiko partez demokrazia aldarrikatzeko kalera atera gara langileok Maiatzaren Lehenean. Hau ez da protesta ekintza bakarra izan. Azken asteotan hainbat bilkura egin dugu egoera hau salatzeko, eta martxoaren 13an ordu beteko greba egin genuen egunkariaren itxieraren aurka.

**–Dena den, Aznarren gobernuak aurrera darrai bere neurriekin.**

–Itxura guztien arabera erasoek jarraitu egingo dute, eta gure aldetik hausnarketa bat egin beharrean gaude. Gure ustez, erantzun puntualak alde batera utzi gabe, jauzi bat eman behar dugu eta proposamen eta konpromiso zehatzak jasoko dituen aldi berri bat martxan jartzeko gai izan behar dugu. ELAk eta LABek zenbait pauso egin dugu azken aldion, baina bueltarik izango ez duen prozesu bat abian jarri ahal izateko ez dira nahikoak, zoritxarrez. Era horretan, argi izan behar dugu bortizkeria tartean dela ezinezkoa dela aurrera egitea.

**–Orain artekoa ikusirik, zer irizten diozu LABekiko elkarlanari?**

–Ongi, dudarik gabe. Negoziazio kolektiboan aurrerapauso interesgarriak egin ditugu bi sindikatuok. Bestalde egoera politiko nahasi honetan bere garantzia duten agiriak sinatu ditugu elkarrekin. Hor daude, besteak beste, “Ideia guztiak, pertsona guztiak Euskal Herri osoan” izenburua daramana eta aurtengo Aberri Egunaren aurrean adostutako agiria.

Baina berriro diot: jauzi bat egin behar dugu, eta horretarako beharrezkoa da aldi berri bat zabaltzea eta ikuspegi estrategikoa izango duen akordioa jartzea mahai gainean, ahalik eta lasterren.

## Labur Breves...




### ❍ 20.000 personas demandaron justicia y democracia el 1 de Mayo

El estado de la negociación colectiva, de bloqueo debido a la postura patronal de negarse a negociar las demandas de la mayoría sindical y la escalada antidemocrática de corte autoritario y antirepresivo del PP protagonizaron las pancartas e intervenciones en el 1 de mayo de este año convocado conjuntamente por ELA, LAB,. EHNE e Hiru.

Tras la manifestación, 5000 afiliados/as de ELA disfrutaron de la ya tradicional comida de hermandad y fiesta en la Feria de Muestras de BIlbao.

### ❍ Concentración de los trabajadores de Babcock en Madrid

Un millar de trabajadores/as de Babcock Borsing se trasladó el pasado 13 de mayo a Madrid para demandar soluciones a la SEPI al tiempo que responsabilizaron al PP de la privatización fracasada.

En la reunión que mantuvieron con la Sepi, los sindicatos fueron informados de que en un mes esperan tener las ofertas de tres grupos interesados en esta empresa.

ELA trasladó a la Sepi que sus responasabilidades no terminan con la búsqueda de un nuevo propietario y exigieron que éste sea solvente financieramente, que asuma el proyecto industrial y que garantice el empleo.

### ❍ Egunkari berria, martxan

*Egunkaria*ren langileek eguneroko berria argitaratzeko asmoa aurkeztu dute, eta horren berri eman diote ELAri ostiralean izandako bilera batean (eskuineko irudian). Kazeta berria ekainaren amaiera aldera kalean izatea espero dute. Proiektua babestu nahi duenak 50 edo 300 eurotan salgai jarri diren akzioak eros ditzake:

*** Interneten www.ektsa.net gunera jo.**

*** 635 733 385 edota 635 733 386 telefonoetara deitu.**



**Franqueo concertado n.° 08/207**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00